

HERNANIKO UDALA*Iragarkia*

Hernaniko Udaleko alkateak 2014ko ekainaren 2an emandako ebazpena, zeinen bidez erabaki baita Estatuaren Abokatu-tzak Administrazioarekiko Auzitarako Sailaren Donostiako 3. Epaitegian jarritako 190/2014 zenbakiko administrazioarekiko auzi errekurtsio arruntari dagokion administrazio espedientea bidaltzea. Errekurtsioa Tokiko Gobernu Batzarrak 2014ko martxoaren 28ko bileran hartutako erabaki honen aurkakoa da: «Hernaniko Udaleko funtzionarioen plantillan hutsik dagoen administrazio orokorreko teknikari plaza bat betetzeko lehiaketa-oposizio irekia arautuko duten oinarriak», Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN 2014ko apirilaren 30ean argitaratua.

Administrazioarekiko Auzi Eskumena arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 48. artikulua dioenaren arabera (1998ko uztailaren 14ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*), eta aipatutako Epaitegiak erabakitakoa betetze aldera, erabaki da ezen Estatuaren Abokatu-tzak jarria den goian aipatutako administrazio errekurtsioaren inguruko administrazio espedientea bidaltzea. Esan bezala errekurtsioa Tokiko Gobernu Batzarrak 2014ko martxoaren 28an hartutako erabaki honen kontrakoa da: «Hernaniko Udaleko funtzionarioen plantillan hutsik dagoen administrazio orokorreko teknikari plaza bat betetzeko lehiaketa-oposizio irekia arautuko duten oinarriak», Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN 2014ko apirilaren 30ean argitaratua.

Bestalde, aipatutako Legearen 49. artikulua arabera, dei egiten zaie aurkatutako ebazpenaren ondoriozko eskubideak eratorri edo eratorriko zaizkien pertsoneri, eta haren mantentzean zuzeneko interesa luketen guztiei, ager daitezela eta autotan pertsonatu daitezela aipatutako epaitegian, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo bederatzai egunen barruan.

Eta iragarki hau argitaratzen da denek jakin dezaten.

Hernani, 2014ko ekainaren 2a.—Luix Intxauspe Arozamena, alkatea. (5469)

AYUNTAMIENTO DE HERNANI*Anuncio*

Resolución de 2 de junio de 2014, de la Alcaldía del Ayuntamiento de Hernani, por la que se acuerda la remisión del expediente administrativo correspondiente al recurso contencioso-administrativo ordinario 190/2014 interpuesto por la Abogacía del Estado contra el acuerdo de la Junta de Gobierno Local en sesión de 28 de marzo de 2014, por el que se convoca concurso oposición libre para cubrir un plaza de técnico de administración general y se aprueban las bases que han de regir su convocatoria publicada en el BOTH de 30 de abril de 2014, ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo n.º 3 de Donostia.

A tenor de lo dispuesto en el artículo 48 de la Ley 29/1998 de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-administrativa (*Boletín Oficial del Estado* de 14 de julio de 1998), y en cumplimiento de lo solicitado por dicho Juzgado se ha acordado la remisión del expediente administrativo correspondiente al recurso contencioso-administrativo en el encabezamiento citado, interpuesto por la Abogacía del Estado contra el acuerdo de la Junta de Gobierno Local en sesión de 26 de marzo de 2014, por el que se convoca concurso oposición libre para cubrir un plaza de técnico de administración general y se aprueban las bases que han de regir su convocatoria publicada en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa de 30 de abril de 2014.

Asimismo, a tenor de lo dispuesto en el artículo 49 de la citada ley, se emplaza a todas aquellas personas a cuyo favor hubieren derivado o derivasen derechos de la resolución impugnada y a quienes tuvieran interés directo en el mantenimiento de la misma, para que comparezcan y se personen en autos ante el referido Juzgado en el plazo de nueve días, siguientes a la publicación de la presente resolución.

Lo que se publica para general conocimiento.

Hernani, a 2 de junio de 2014.—El alcalde, Luix Intxauspe Arozamena. (5469)